

EKONOMIA-JARDUERATARAKO LURZORU PUBLIKOA ETA MERKATARITZA-EKIPAMENDUAK SORTZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA

AURKEZPENA

Lurraldearen Antolamendu eta Ingurumen sailburuaren aurkezpena

2004ko abenduaren 21an Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak, 262/2004 Dekretuaren bidez, Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoru Publikoa eta Merkataritza Ekipamenduak sortzeko Lurraldearen Arloko honako Plana onartu zuen.

Pozgarria da niretzat, dokumentu hau aurkeztea, zorrotasunez gauzatu baita eta, halaber, adostasun konpromiso bati erantzuten baitio. Azpimarratzekoa da ere, erakunde eta gizarteko talde desberdinek proiektu honi eman dizkieten kalitate handiko ekarpenak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1190 Legeak gure Autonomia Erkidegoko lurraldea antolatzeko tresnak ezarri zituen: Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak, Lurraldearen Zatiko Planak eta Lurraldearen Arloko Planak.

Eusko Jaurlaritzak otsailaren 11n emandako 28/1997 Dekretuaren bitartez behin betiko onartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak eta artezpide hauek gainerako tresnak formulatzeko eta idazteko erreferentziarako esparru bihurtu dira.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen 9.4. epigrafean ekonomia-jarduerak garatzeko lurra antolatzeari buruzko politikarako orientabideak ezartzen dira eta eskualde-egitura bakoitzerako ondoko edukiak lantzen dira:

- a. Eskualde-egitura barruan ekonomia-jarduerak garatzeko lur-eskariaren analisi kualitatiboa eta kuantitatiboa.
- b. Eskualde-egituraren barruan ekonomia-jarduerak garatzeko luraren analisi eta diagnostiko zehatza.
- c. Lur berria eskaintzeko eragiketa nagusiak proposatzea, gutxi gorabehera beren kokapena eta ezaugarriak adieraziz.
- d. Gaur egun dagoen industriaren ezaugarriek gomendatzen badute, industria hauek kokapen berri batean finkatzeko aukera aztertzea.
- e. Ekonomia-jarduerak garatzeko proposatzen diren eremuen tipologiari eta gainerako baldintzei buruzko gomendioak, udal-plangintzak zehaztu eta garatu beharrekoak.

Alderdi hauek guztiak eskualde-egitura bakoitzeko Lurraldearen Zatiko Planek finkatu beharko dituzten arren, komeni da Euskal Autonomia Erkidegoaren osotasuna hartuko duen ekonomia-jardueretarako lurzoruaren eskaintza eta eskariaren oinarriko kuantifikazioko alderdi orokorrei buruzko azterketa orokorra egitea, bai eta eskualde-egitura bakoitzean planteatzen diren lurren eskaintzaren ezaugarri kualitatiboen arteko koordinazio eta osagarritasuneko alderdiei buruzko azterketa egitea ere.

Horrenbestez, Lurraldearen Arloko Plan honen funtsezko helburuetako bat Euskal Autonomia Erkidegoa osotasunean hartuko duen ekonomia-jardueretarako luraren hirigintza-arloa jorratzea izango da; izatez, tresna hau guztiz lagungarria izango da Lurraldearen Zatiko Planak lantzeko prozesua koordinaturik eta nolabaiteko homogeneousotasunez eta osagarritasunez bideratzeko.

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailburua

Sabin Intxaurre Mendibil

Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren aurkezpena

Lurralde eta Antolamendu eta Ingurumen sailak eta Industri, Merkataritza eta Turismo sailak elkarrekin eragindako dokumentu hau, hain zuzen, Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoru Publikoa eta Saltoki Handiak Sortzeko Lurraldearen Arloko Plana, 2004ko Abenduaren 21an Gobernu kontseiluak behin betiko onartu zuen.

Eragile departameto baten sailburu bezala, pozgarria da aurkeztea behin betiko onartutako dokumentu hau, zorroztasunez gauzatu eta adostasunez izapidetu denean.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren ekintza nagusietako bat Euskal Autonomia Erkidegoaren osotasunean industria, merkataritza eta turismoko ekonomia-jarduerak finkatzeko eta garatzeko lur egokia antolatzea bideratuko diren prozesuak sustatzean datza.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan sustapen-politika hau garatzeko tresna gisa honako plan hau, hau da, Ekonomia Jardueretarako Lurzoru Publikoa eta Merkataritza Ekipamenduak Sortzeko Lurraldearen Arloko Plana, idaztea hartzen da aintzat.

Gizarteak ekonomia-jarduera berriak hartzeko prestatutako lurra (ondo kokatua, urbanizatua eta onar daitekeen kostua duena) eskatzen du eta eskari honek interes orokorra du, behar-beharrezkoa baita gure Erkidegoaren lurraldean oreka bilatuko duen ekonomia-garapena bermatzeko. Horrenbestez, Plana garatzeko helburu nagusia ekonomia-jardueretarako luraren hirigintza-antolamenduko lanetan eta luraren merkatuko prezioak erregulatzeko lagungarriak izango diren poligono estrategikoak sustatzeko lanetan Administrazioaren hainbat erakunde-estamentu buru-belarri esku hartzea izango da.

Dagoeneko programatuta dauden industria-lurak garatzeko eta sustatzeko ekintzak burutuko dira, zaharrituta geratu diren industria-eremuak birmoldatzeko eragiketa garrantzitsuak sustatuko dira eta, etorkizuneko eskariak aintzat hartzen dituzten aurreikuspenetan oinarrituta, lurraldearen hainbat puntu estrategikoetan ekonomia-hedapeneko poligono berriak sustatuko dira. Izan ere, dokumentu honen bitartez etorkizunean honen guztiaren arteko hirigintza-oreka bermatzeko funtsezko alderdiak eskeintzen dira.

Merkataritza-ekipamendu handiak eta aisialdiguneak ezartzearen fenomeno guztiz zabaltzen ari dela ikusi ahal izan dugu eta garapen honek, interes ekonomiko orokorreko beste sektore batzuekin batera, kokapen estrategikoa duten luraren eskariaren gain eragin handia duela antzeman ahal izan dugu.

Merkataritza jardueraren arloan indarrean dagoen araudia, Merkataritza Jarduerari buruzko 7/2000 Legea alegia, merkataritza-ekipamendu handiak eta aisialdiguneak ezartzeko lurralde-antolamendu eta hirigintza-erregulazioko alderdien azterketarekin osatu behar da eta asmo horrekin, hain zuzen ere, barne hartu da alderdi hau Lurraldearen Arloko Plan honetan.

Hori dela-eta, ulertu da Lurraldearen Arloko Planaren helburuetako bat merkataritzagune handiak plangintza orokorraren eta lurraldearen antolamenduaren esparruan behar bezala integra daitezen bermatuko duen hirigintza-erregulazioko proposamen bat finkatzea izango dela.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburua

Ana Aguirre Zurutuza